

# 2018 URTEKO MEMORIA SAE-HELAZ

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)



# Aurkibidea

ZER DA SAE-HELAZ?	1
NOR GARA ETA NON GAUDE?	2
HELBURUAK	3
GURE JARDUERAK	5
1. Unibertsitateko irakasleen irakas-prestakuntza (FOPU-UIPRE)	6
2. UPV/EHU-KO irakasleen gaitasun akademikoa garatzeko programa (iRAKER)	13
3. irakasBERRI: irakasle berrien harrera eta orientazio	15
4. Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko irakasle Klinikoen prestakuntza programa	16
5. Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektuak	19
6. Ehundu AURRERATUA PROGRAMA	25
7. Irakasle Talde Egituratuak	27
2018an egin diren BESTE JARDUERA BATZUK	30
1. ERANSKINA	33

# ZER DA SAE-HELAZ?

Servicio de Asesoramiento Educativo-Hezkuntzarako Lagunza Zerbitzua (SAE-ELAZ) antzinako Hezkuntza Zientzien Institutuan egindako egokitzapenen ondorioz sortu zen (UPV/EHUko Gobernu Kontseilua, 2002/09/30), eta helburu nagusi dauka unibertsitateko hezkuntzaren berrikuntza bultzatzea eta sustatzea, hartara, UPV/EHUk sustatzen duen IKD (Ikaskuntza-Irakaskuntza Kooperatibo eta Dinamikoa) ereduaren bidez antzemandako premiak oinarri hartuta. **SAE-HELAZek** egiaztatu egiten ditu zerbitzuak berak antolatuko prestakuntza jarduerak eta ikastegiek zerbitzuarekin batera bultzatutakoak. Horrez gain, zerbitzuan daude gordeta ICE/HEZIK emandako tituluak, eta bere erantzukizuna da Tituluen Katalogo Ofizialean ez dauden tituluak ematea.

Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzaren menpeko zerbitzua da, eta UPV/EHUrren hiru campusetako jarduerak koordinatzen eta kudeatzen ditu. Zerbitzuko lantaldeko kide dira UPV/EHUko bost irakasle. Beren jardunaren zati bat zuzendaritza lana, metodologiaren berrikuntza eta koordinazio lana egiten ematen dute, hiru campusetan banatuta. Prestakuntzako teknikari batek eta administrazio lanetarako langile batek osatzen dute lantaldea.

Hezkuntzarako Lagunza Zerbitzuaren jarduera nagusietako bat da unibertsitateko irakasleei hasierako prestakuntza eta prestakuntza etengabea ematea, ikaskuntza-irakaskuntza prozesua hobetze aldera, IKD ereduaren parametroei jarraikiz betiere. Helburua hori izanik, hainbat programa eskaintzen ditu UPV/EHUko irakasleentzat, zehazki, ikastaroak eta mintegiak, laburrak zein epe luzean egitekoak, horien guztien bidez metodologiaren ikuspegitik irakaskuntza berritzaile eta kalitatezkoa lortzeko eta irakasleei beren ibilbide akademiko osoan laguntzeko.

Bestalde, lanean aritzen gara Kalitate eta Ebaluazio Instituzionaleko Zerbitzuarekin eta Irakaslana Ebaluatzeako Zerbitzuarekin, erakundearen garapenaren arloan. Hain zuzen ere, **ehundu** programaren bitartez egiten dugu hori, UPV/EHUko Gradu Berrien Garapen Curricularrean laguntzeko. Ildo estrategiko horren barruan, zerbitzuaren ardura da ikastegiei aholku eta lagunza ematea irakaskuntzaren arloko koordinazioa eta lidergoa bultzatzeko, ikastaroak edo prestakuntza planak diseinatzeko, edo curriculuma aldatu edo berritzeko proiektuak garatzeko.

Azkenik, UPV/EHUn hezkuntzaren berrikuntzaren arloan egiten den zabalkunde eta komunikazio lana garatzeko ekintzak sustatzen ditu zerbitzu honek. Besteak beste, hauek egiten ditu: barneko eta kanpoko jardunaldiak antolatu eta jardunaldiaren parte hartu, eta berrikuntzaren arloko esperientziak hedatu eta irakaskuntzaren garapenaren arloarekin zerikusia daukaten irakaskuntza eta ikerketako profesionalen foroetan eta foro zientifikoetan parte hartu.

# NOR GARA ETA NON GAUDE?



SAE-HELAZen egoitza Leioako Campusean dago, zehazki, helbide honetan: Liburutegiaren eraikina, 6 solairua. Hauek dira gure posta elektronikoa eta webgunea, hurrenez hurren: [sae-helaz@ehu.eus](mailto:sae-helaz@ehu.eus) eta <https://www.ehu.eus/sae-helaz>. Posta helbidea: Sarriena auzoa z/g, 48940 LEIOA

## 1. taula. SAE-HELAZen direktorioa.


Kargua	Izen-abizenak	Posta elektronikoa:	Telefono zk.
Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuko zuzendaria	Mirari Ayerbe Diaz	mirari.ayerbe@ehu.eus	94 601 2295 945 01 3239
Metodologia Berrikuntzako zuzendaria	Urtza Garay Ruiz	urtza.garay@ehu.eus	94 601 7570
Zerbitzuko koordinatzailea Arabako Campusean	Iker Ros Martínez de Lahidalga	iker.ros@ehu.eus	945 01 4315
Zerbitzuko koordinatzailea Bizkaiko Campusean	Elena Diaz Ereño	elena.diaz@ehu.eus	94 601 2247
Zerbitzuko koordinatzailea Gipuzkoako Campusean	Mikel Garmendia Mujika	mikel.garmendia@ehu.eus	943 01 8671

Prestakuntzako teknikaria	Eneritz Ugarte Velasco	eneritz.ugarte@ehu.eus	94 601 2276
Administrazio laguntzailea	Maria Teresa Barrenechea Pujana	mariateresa.barrenechea@ehu.eus	94 601 2289

## HELBURUAK


Hauek dira zerbitzuaren helburuak, labur-labur adierazita:

- IKD (Ikaskuntza-Irakaskuntza Kooperatibo eta Dinamikoa) eredua garatzeko laguntza teknikoa eta akademikoa ematea garapen eta aholkularitza estrategien bidez.
- UPV/EHUko beste zerbitzu batzuekin batera lanean aritzea IKD garatzeko aukera daukaten arloetan, berrikuntza eta irakaskuntzaren garapen jasangarria lortze aldera.
- Irakasle eta ikertzaileen premiei aurre egitea ikaskuntza-irakaskuntza prozesuen hobekuntza eta berrikuntza oinarri duten gaietan, horretarako programak eta estrategiak diseinatuz, garatuz eta horien ebaluazioa eginez.
- Hezkuntzaren berrikuntzaren arloan laguntza eta aholku ematea irakasle eta ikertzaileei, zuzendaritzeta eta dekanotza taldeei, sailei, irakasgaietako/moduluetako eta tituluetaiko koordinatzaileei, graduatan, graduondokoetan zein doktoregoan.
- UPV/EHUko graduoko eta graduondoko titulazioetako curriculumen diseinuan berrikuntzarako premiak antzematea eta arlo horretako praktikak eta proiektuak sendotzen laguntzea.
- UPV/EHUn curriculumaren berrikuntzarako egiten den ikerketari eta zabalkundeari laguntza ematea, eta horrek Euskal Herrian, Estatuan eta nazioartean ikusgaitasuna izatea sustatzea.



**1. irudia.** Horregatik guztiagatik, **IKD irakaskuntza eredua** gure "eman ta zabal zazu" leloaren ispilutzat daukagu, arbolak eta haren fruituak sinbolizatzen dutena. Gure unibertsitatean dauka sustraituta, hain zuzen, bere oinarria; adarrak, berriz, harago daude zabalduta, eskuzabal eta emankor, gure mugen barnean eta horietatik kanpo ikasten, irakasten eta ikertzen diharduen komunitate osoa barne hartzen duela. Hori guztia [UPV/EHUko titulu ofizialen curriculum-garapenerako oinarrriak](#) izeneko dokumentutik hartuta dago.

# GURE JARDUERAK



**2. irudia. SAE-HELAZen jarduerak.** Zerbitzuak eskainitako eta babestutako jarduerak, taldetan antolatuta, koadro edo esku hartze mailaren arabera (banakako maila, ikastegia, berrikuntza taldeak eta irakkasle taldeak). Koadro bakoitzean maila horri dagozkion jarduera nagusiak jasotzen dituen erlaitz bat dago.

SAE-HELAZek hainbat arlotan garatzen ditu bere programak eta jarduerak:

- Hasierako maila batean, banan banako lagunza ematen zaie irakasleei. Arlo honetan egiten diren jardueren helburua izaten da informazioa ematea eta ezagutzera ematea honako gai nagusi hauek: baliabideak, eskumenak eta erakundearen arlokoak gaiak (FOPU-UIPRE ikastaroak eta tailerrak eta iRAKER, irakasBERRI eta iraKLINIK prestakuntza programak). Bereziki aipagarriak dira MetAK eta DOITU tailerrak. Metodologia aktiboen erabilera rako tailerretan (MetAK), metodologia horiek landu, planifikatu eta gelan aplikatzeko jarduerak egiten dira. Helburua da irakkasle taldeei eragitea, metodologia horiek zabal ditzaten. DOITU tailerren helburua da irakkasleen irakaskuntza plangintza hobetzea, IKD ereduarekin bat etor dadin. Maila horretakoak dira, halaber, iRAKER, iraKLINIK eta irakasBERRI programak. Lehenengoa UPV/EHUko irakkasle ez iraunkorren gaitasun akademikoa garatzera dago bideratuta, eta egonkortze bidean dago. IraKLINIK ospitaleetako irakasguneetako irakkasle klinikoei dago zuzenduta, eta irakasBERRI, aldiz, UPV/EHUna iritsi berri diren irakasleei, hasierako orientazioa jaso dezaten.
- Bigarren mailako jardueren helburua da irakkasle talde eragileak sortzea, eta horretarako, irakaskuntzaren arloko eta arlo akademikoko lidergoa (koordinatzaile

lana, batez ere) garatzera zuzendutako ekintzak bideratzen dira. Ekintza horietan parte hartzen duten irakasle taldeek dagokion akreditazioa eskuratu dezateke edIKDit zigiluaren bitartez.

- c. Hirugarren maila batean, fakultate eta ikastegi bakoitzean kudeatutako prestakuntza estrategietarako lagunza ematea dago (**ehundu** programa), aholkularitza lana, eta, batzuetan, egiaztapen lana eginez. Ekintza fokalizatu eta desentralizatu horiek ikastegietan bertan sortzen dira, dekanotza edo zuzendaritza taldeek bultzatuta kalitate batzordeekin elkarlanean, eta bide ematen dute hobeto asetzeko ikastegiak berak berrikuntzaren arloan dituen premiak.
- d. Maila honek, bestalde, berrikuntza taldeak sortzea eta sortuta dauden horiei lagunza ematea du helburu: horrela, irakaskuntzarako ikuspegi eta estrategia orokorrak garatzen joango dira, apurka-apurka. Gainera, etorkizuneko praktiken saiakuntza banku dira, neurri batean.

## 1. UNIBERTSITATEKO IRAKASLEEN IRAKAS-PRESTAKUNTZA (FOPU-UIPRE)

SAE-HELAZen ardura da irakasle eta ikertzaileek prestakuntzaren arloan dituzten premiak antzematea, eta egungo testuinguru dinamikoa aintzat hartuta, prestakuntza eguneratua eta lortu nahi dugun unibertsitate ereduarekin bat datorrena diseinatzea, garatzea eta horren inguruko ebaluazioa egitea.

UIPRE programaren bidez ikastaroak eta mintegiak eskaintzen dira uneko premiei aurre egiteko. Oro har, informazioa ematekoak eta baliabideei buruzkoak izaten dira, horien bidez hobekuntza txikiak egiteko irakaskuntzan, gestioan eta ikerketan.

Bi motatako ikastaro eta tailerrak daude:


- Ikastaro laburrak (4-20 ordu): informazioa ematea dute helburu nagusi, eta egiaztagiria lortzeko ezinbestekoa izaten da bertaratzea eta parte hartzea.
- ECTS (1-3) motako ikastaroak: ikastaro hauek presentzialak eta ez-presentzialak izaten dira, eta egiaztagiria lortzeko oinarria irakaskuntzaren inguruko lan bat izaten da.

UIPRE programak hainbat deialdi izaten ditu urtean (ehutaulan eta SAE-HELAZen webgunean argitaratzen dira), eta aukera ematen dute aipatutako prestakuntza jarduerak eskolarik gabeko aldieta edo ikasturtean zehar egiteko. Interesa duten irakasleak Langilearen Atalian matrikulatzen dira. Eskariak onartzeko, plaza kopurua, interesak eta lehentasunak hartzen dira kontuan. Horrez gain, kasu batzuetan, ikastaro bakoitzeko informazio fitxetan zehaztutako baldintzak ere hartzen dira aintzat.

Bestalde, ikastegiek, sailek edo zerbitzuek lagunza teknikoa lortzeko eta SAE-HELAZekin lankidetzen aritzeko eskaria egin dezakete haren bidez prestakuntzarako jarduera bereziak antolatzeko, betiere, eskaria egiten duenak jarduera antolatzeko finantziazioa badauka eta

bete beharreko baldintzak betetzen baditu (diseinu partekatua, egin beharreko lanen kontrola, ebaluazioa eta gogobetetze inkesta). Baldintza horiek betetzen badira eta prestakuntza jarduerak 25 orduetik gora baditu, SAE-HELAZen egiaztagiria lortu ahal izango da.

### Azken bosturtekoan eskaini diren ikastaroen bilakaera



**1. grafikoa.** Ikastaro kopuruaren bilakera 2014tik 2018ra, campus bakoitzean eta oro har.



**3. irudia.** 2018an egindako ikastaroak, eskainitako orduak eta emandako egiaztagiriak.

Eskaini ditugun ikastaro eta tailer guztien artean, bereziki aipagarriak dira honako hauek, eragin handia izan dutelako ikaskuntza-irakaskuntza prozesuen eta irakaskuntza plangintzaren hobekuntzan:

- **Doitu: zer hobetu dezaket nire irakaskuntza plangintzan?** tailerra Tailerraren helburua parte hartzaleen irakaskuntza plangintza hobetzea eta irakaskuntza garatzen laguntzea da, Docentiaz programara aurkezteko prestatze aldera. Bi ikastaro egin dira, eta guztira **38 pertsonak** hartu dute parte (**22 emakume** eta **16 gizon**).
- **Metodologia aktiboak** tailerrak: Metodologia aktiboen erabilerarako 3 tailer egin dira, eta **71 pertsonak** hartu dute parte (**43 emakume** eta **28 gizon**).
  - Lehen aldiz eskaini da Eginklik tailerra: metodologia aktiboak IKT-en laguntzaz. **13 pertsonak** (**10 emakume** eta **3 gizon**) hartu dute parte.

Azken urteotan bezalaxe, UIPRE ikastaroetarako deialdiak Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzako beste zerbitzu batzuetatik helarazitako prestakuntza jarduerak eskaintzeko bidea izan dira.

**eCampusek** eGelari buruzko online prestakuntza eskaini du berriro: "oinarrizko tresnak" eta "tresna osagarriak" ikastaroak antolatu dira euskaraz eta gaztelaniaz. Horrez gain, lehen aldiz egin da "Claves para la creación de cursos online en entornos virtuales de aprendizaje" tailerra. Helburua da unibertsitateko irakasle taldeak beren irakasgaiak formatu hibridoan edo erabat online emateko prestatzea.

**Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuarekin** eta Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordearekin elkarlanean, "Docentiaz programan ebaluatzailentzako formakuntza tailerra"ren hirugarren edizioa antolatu dugu, Docentiaz programako ebaluatzairen lan poltsa zabaltzeko.

UPV/EHUko **Berdintasun Zuzendaritzak** genero ikuspegidun ikastaroak sartu du gure irakaskuntza eskaintzan. Aurten, honako ikastaro hauek eman dira: "Cómo actuar en los casos de violencia de género" eta "Introducción a la coeducación en disciplinas STEAM desde un enfoque de saberes: Comprensión, capacitación y actuación en la Universidad".

**Iraunkortasun Zuzendaritzak** ere ekarpenak egin dizkio UIPREko eskaintzari tailer honekin: "Iraunkortasunerako Hezkuntzaren gaitasunak unibertsitate ikasketetan zelan integratu?".

## 2018ko ikastaro eta tайлerrak



### Irakaskuntzarako prestakuntza

**2. taula.** Prestakuntza.

Izenburua	Iraupena	Akreditazioak	♀	♂
Taller MENTORING: ¿Cómo puedo colaborar en el desarrollo profesional	50	8	4	4
Taller DOITU: ¿Qué puedo mejorar en mi planificación docente? / DOITU lantegia: Zer hobetu dezaket nire irakaskuntzaren plangintzan?	100	38	22	16
Taller de aplicación de Metodologías Activas/ Metodología aktiboen erabilera rarako tайлerra	75	71	43	28
Eginklik tайлerra: metodología aktiboak IKTeen laguntzaz / Taller Eginklik: metodologías activas con la ayuda de las TIC	25	13	10	3
Claves para la creación de cursos online en entornos virtuales de aprendizaje	37,5	13	7	6
Coaching educativo: Cómo lograr un aprendizaje eficaz y motivador para alumnado y profesorado	9	19	15	4
Unibertsitatean irakasteko oinarri didaktikoak	25	38	27	11
Cómo redactar mejores exámenes tipo test	8	17	12	5
Aspectos jurídicos a tener en cuenta en la gestión de contenidos online	8	7	3	4
Introducción a la coeducación en disciplinas STEAM desde un enfoque de saberes: Comprensión, capacitación y actuación en la Universidad	12	7	7	0
La evaluación en la Educación Superior: estrategias y recursos	9	29	22	7
La tutoría durante la formación de postgrado ¿Cómo garantizar la adquisición de las competencias?	25	10	6	4
Rúbricas para la orientación y evaluación del aprendizaje situacional	25	18	12	6
Seminario: Cómo hacer mis prácticas de laboratorio más seguras y sostenibles	7,5	11	6	5
Taller sobre dirección de tesis doctorales	6	27	19	8
Online edukiak kudeatzerakoan kontutan hartzeko gako juridikoak	5	11	8	3

Izenburua (2. taularen jarraipena)	Iraupena	Akreditazioak	♀	♂
TFG y proyectos multidisciplinares basados en situaciones profesionales	25	12	8	4
Taller de integración de las competencias en Educación para la Sostenibilidad en los estudios universitarios	25	25	15	10
eGela: Herramientas fundamentales	16	44	22	22
eGela: oinarrizko tresnak	16	22	15	7
eGela: herramientas complementarias	16	11	8	3
eGela: tresna osagarriak	16	15	7	8
eGela: herramientas de seguimiento, restricción de acceso e insignias	16	12	6	6
eGela:jardueren jarraipena egiteko tresnak, eskuragarritasuna mugatu eta dominak	16	14	9	5



### Ikerketarako prestakuntza

**3. taula.** Prestakuntza.

Izenburua	Iraupena	Akreditazioak	♀	♂
Análisis de datos con SPSS	20	26	17	9
Introducción al análisis de datos con SPSS	20	24	17	7
Validación de cuestionarios con SPSS	16	8	5	3
Introducción al manejo R con R Commander	20	17	10	7
Curso de Formación en Captación y Gestión de Proyectos Internacionales Erasmus+ KA2 Capacity Building	5	23	9	14
LabVIEW Core 1	24	9	0	9
LabVIEW Core 2	16	14	3	11



## Garapen profesionalerako prestakuntza

**4. taula.** Prestakuntza.

Izenburua	Iraupena	Akreditazioak	♀	♂
Taller de formación de evaluadores/as del programa Docentiaz	25	7	2	5
Docentiaz programan ebaluatzaileentzako formakuntza tailerra	25	16	4	12
Administrador/a Web	10	8	5	3
Editor/a de contenidos	5	15	7	8
Cómo gestionar, animar y hacer productivas las reuniones de trabajo	4	21	14	7
Controla mejor tu día técnicas para mejorar la efectividad y productividad en tu puesto de trabajo	12	82	53	29
Irakasle agregatu eta titularren oposaketetarako irakaskuntza-proiektuko memoriaren elaborazioa / Elaboración de la memoria del proyecto docente para las oposiciones a profesorado agregado y titular	4,5	167	104	63
Nola kudeatu gure harremanak eta emozioak	20	6	5	1
Cómo actuar en los casos de violencia de género	15	7	5	2

## 2. UPV/EHU-KO IRAKASLEEN GAITASUN AKADEMIKOA GARATZEKO PROGRAMA (iRAKER)



Programa hau 2017an abiarazi zen, erakundeak premia daukalako estrategia sendoak ezartzeko, UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileen garapen ekonomikoa bideratu eta errazte aldera; eta, batez ere, oinarriak ezarri behar dituelako irakasleen belaunaldi berri bat eraginkortasunez sartzeko bizitza akademikoan.

iRAKER programa honako errektoreordetzen arteko lan koordinatuaren fruitu da: Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetza (SAE-HELAZen bitartez), Ikerketaren arloko Errektoreordetza, Irakasleen arloko Errektoreordetza eta Eleaniztasunaren arloko Errektoreordetza.

**iRAKER programaren bidez helburu orokor hauek lortu nahi dira:**

- Laguntza ematea finkatze bidean dauden irakasle doktoreei (irakasle atxikiei) UPV/EHUko irakasle izateko nortasun profesionala bere osotasunean eraikitzea eta plantilla egonkorrean finkatzeko.
- Irakasle doktore akreditatu hasiberrienak unibertsitatearen dinamika konplexuan sartzea (irakaskuntza, ikerketa eta konpromiso publikoa), lan horretan irakasle berriak eta finkatuak tartean sartuz.
- Erraztasunak ematea talde horrek UPV/EHUko Ikaskuntza Profesionaleko Plana diseinatu eta betetzeko behar duen laguntza prozesuan, kontuan izanda beren esperientzia izango dutela abiapuntu, eta helmuga, berriz, hurrengo akreditazioak ezartzen dizkieten erronkak.
- UPV/EHUko ikastegiei ardurak ematea lan horretan, hasiberriak irakasle taldeen, ikertaldeen eta erakundeari laguntza emateko lanaren dinamikan sar daitezela bultzza dezaten.
- Baldintza egokiak sortzea talde hori Unibasq edo ANECA agentzien bidez, irakasle iraunkorren figuretarako kanpoko akreditazioa lortzera bideratzeko.

**Programaren 1. deialdia: iRAKER-1 (2017).** 2018an bukatu da lehen edizioa. Programak 10 ECTSko lan karga eta 18 hilabeteko iraupena izan du.

**Programaren 2. deialdia: iRAKER-2 (2018).** Egin beharreko egokitzapenak egin eta lehenengo edizioko aurreneko bi moduluak evaluatu eta gero, martxan jarri da bigarren deialdia; 8 ECTSko lan karga eta 18 hilabeteko iraupena du.

5. taulan daude bi deialdien emaitzak.

**5. taula.** Mentoreak eta akreditazioak eskuratu dituzten bi edizioetako irakasleak, sexuaren arabera banatuta.

		Emakumeak	Gizonak	Guztira
iRAKER-1	Akreditatuak	11	7	<b>18</b>
	Mentoreak	8	11	<b>19</b>
iRAKER-2	Akreditatuak	11	6	<b>17</b>
	Mentoreak	7	13	<b>20</b>

### 3. irakasBERRI: IRAKASLE BERRIEN HARRERA ETA ORIENTAZIOA



2018ko urrian abiarazi zen irakasBERRI, irakasle berrientzako harrera eta orientazio programa. UPV/EHUn 3 urtez edo gutxiagoz irakasle ibili diren irakasleei dago zuzenduta.

Hasteko, ezaugarri horiek betetzen zituzten irakasleak identifikatu ziren eta beren ikastegietan lehen bilera informatibo bat egiteko deia egin zitzaien. Ondoren, prestakuntza saio espezifikoak egin ziren UPV/EHUko 3 campusetan. Guztira, 73 pertsonak hartu zuten parte (49 emakume eta 24 gizon).

**6. taula.** 2018ko deialdian parte hartu zuten irakasleak, campusaren arabera banatuta.

	Emakumeak	Gizonak	Guztira
<b>Araba</b>	18	3	21
<b>Gipuzkoa</b>	13	6	19
<b>Bizkaia</b>	18	15	33
<b>Parte hartzaleak</b>	<b>49</b>	<b>24</b>	<b>73</b>

## 4. MEDIKUNTZA ETA ERIZAINTZA FAKULTATEKO IRAKASLE KLINIKOEN PRESTAKUNTZA PROGRAMA



2018ko otsailean abiarazi zen iraKLINIK, Gasteizko, Basurtuko, Gurutzetako eta Donostiaiko ospitaleetako irakasleguneetan jarduten duten irakasle klinikoentzako prestakuntza programa.

Hain zuzen, irakasle klinikoek beren irakaskuntzari buruz jaso eta jakinarazi dituzten kezkei erantzuteko sortu zen. Egitasmo hau fakultateko dekanotza taldeak sustatu du, SAE-HELAZen laguntzaz. Eragindako irakasleei kontsulta egin eta gero, bi modalitatean eskaini da prestakuntza programa:

- Prestakuntza ekintzetara aldian behin bertaratzea, modu ez loteslean; hau da, ez egitea presentziala ez den atazarik.
- Prestakuntza ekintza guztietara bertaratzea, modu loteslean; hau da, banakako nahiz taldeko ataza ez presentzialak egitea.

Bigarren modalitate horrek 2,5 ECTSko lan karga eman die parte hartzaileei.

Programa 4 ikastarotan antolatu da (7. taula). Iraupen ezberdina izan dute eta irakasgune guztietan egin dira, bereziki Gurutzetan (argazkiak) eta Donostian. Horrez gain, irakasle



guztiei irekitako saio bat egin da Leioako fakultatean.

**7. taula.** IraKLINIK programa osatzen duten ikastaroek iraupen, kokapen eta parte hartzaile kopuru ezberdinak izan dituzte.

Programako ikastaroak	Iraupena	Tokia
1. Irakaskuntzaren kudeaketarako lanabesak	2 du P	3 ordu EP
2. Nola hobetu dezaket nire irakaskuntza jarduna		Irakaslegune guztiak
IKD eredu, irakaskuntza gida eta ikaslearen gida		
Metodologia aktiboak (1)		
Metodologia aktiboak (2)		
Ebaluazioa Goi Hezkuntzan		
Ikasitakoa partekatzea		
3. ¿Cómo integrar la simulación en el Grado?	15 ordu P	25 ordu EP
4. Aula inversa "Flipped classroom"	3 ordu P	1h NP
Irakaslegune guztiak		
MEF (Leioa)		

P: presentziala; EP ez presentziala; MEF: Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea.


Irakasleen ustez interesgarrienak izan diren saioak video-streaming bidez ikusteko aukera egon da irakaslegune guztietai.

Prestakuntza taldea

UPV/EHUko irakasle hauek izan dira prestakuntzaren arduradun: Águeda Fernández de Aranguiz Guridi (Farmazia Fakultatea); Isabel Smith Zubiaga (Zientzia eta Teknologia Fakultatea); Elena Diaz Ereño (Medikuntza Fakultatea); eta Mirari Ayerbe Diaz (SAE-HELAZeko zuzendari eta koordinatzailea). Gainera, irakaskuntza medikoan esperientzia zabala duten beste unibertsitate batzuetako hiru adituk ere hartu zuten parte talde horretan: Carmen Gomar Sancho (Hospital Clinic, Barcelona), Alfredo Prieto Martín (Medikuntza Fakultatea, Alcalá de Henares) eta José Luis Palés Argullós (Facultat de Medicina i Ciències de la Salut, Barcelonako Unibertsitatea).

iraKLINIK programako parte hartzea

Grafiko honetan daude jasota programaren emaitzak, parte hartze motaren arabera.



**2. grafikoa.** Irakasleen parte hartzea iraKLINIK programako prestakuntza ekintzetan, aldian behingo modalitateari eta programa osoari dagokionez, sexuaren arabera banatuta. 2017/18 ikasturtea.

### Autoebaluaketa (gogoetak)

Saio laburrez (pilulez) osatutako eredu malguago bat eskaintza, aldian behin parte hartzeko aukera emago duena, eta pack formatuarekin konbinatza (4-5 saio). Horretarako, akreditazio sumatiboa proposatzea.

Programak aurrera egingo duelako bermetzat jotzen dira honako hauek: erreferentziazko taldea(k) sortzea, parte hartzea neurri batean derrigorrezkoa izatea edo nolabaiteko baldintzak ezartzea eta ekintzak aurretiaz prestatzea.

Beharrezkotzat jotzen dugu irakasle klinikoen profilak identifikatzea, prestakuntza beren irakaslanera eta beren garapen profesionalera egokitzeko.

## 5. HEZKUNTZA BERRIKUNTZARAKO PROIEKTUAK



SAE-HELAZek hamar urte baino gehiago daramatza hezkuntza berrikuntza sustatzen uteroko HBP/PIE deialdiaren bitartez, laguntza emateko ikasleen ikaskuntza prozesua hobetzeko xedez beste ekintza eta estrategia batzuk modu esperimentallean jorratzen hasi ziren irakasleei. Programa honek arrakasta handia izan du, eta hasiera batean irakasle gutxi batzuk baino ez ziren arren irakaskuntza berritzeko interesa zeukanenak, egun gero eta gehiago dira berrikuntzaren aldeko programa honetan parte hartzen duten irakasle taldeak, eta beren esperientziak unibertsitatean bertan eta estatuan eta nazioartean antolatzen diren foroetan partekatzen dituzte.

Honako hauek dira **SAE-HELAZek** HBPei dagokienez egiten dituen jarduera nagusiak:

- Orientazioa eta aholkularitza ematea eskariak aurkezten direnean.
- Deialdira aurkezten diren proiektuen ebaluazioaren koordinazio lanak egitea, argitaratutako deialdiaren irizpideen arabera betiere, eta UPV/EHUren IKD ereduan daukaten eragina ebaluatzea.
- Aukeratutako proietkuekin, hasierako bilera eta jarraipen bilera egitea.
- HBPei dagozkien gastuetako fakturak gainbegiratzea.
- Proiektuaren bilakaera gainbegiratzea: aholkularitza.
- Azken txostenak aurkeztuta daudela egiaztatzea.
- Azken txostenak irakurtzea eta proiektuak egiaztatzea.

2017ko ekainean emandako prestakuntzari esker, nabarmen hazi da 2018an abiarazitako proiektu kopurua, baita parte hartzale kopurua ere. Hauek dira datuak, zehatz-mehatz:

- **2017-2018 deialdia:** 2018ko abenduan bukatu zen. **212 pertsonak** hartu dute parte (109 emakume eta 103 gizon) eta **26 proiektu** gauzatu dira (4 ADITUAK eta 22 HBP). Zehazki, UPV/EHUko 194 irakaslek (104 emakume eta 90 gizon), 12 ikaslek (4 emakume eta 8 gizon) eta kanpoko 6 eragilek (1 emakume eta 5 gizon) hartu dute parte.
- **2018-2019 deialdia:** **363 persona** ari dira lanean (195 emakume eta 168 gizon) **37 proiektutan** (5 ADITUAK eta 32 HBP). Zehazki, UPV/EHUko 310 irakasle (166


emakume eta 144 gizon), 46 ikasle (27 emakume eta 19 gizon) eta kanpoko 7 eragile (2 emakume eta 5 gizon) ari dira horietan parte hartzen.

2017an, Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetza hitzarmen bat sinatu zuen Zuzenbide Fakultateko Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoarekin, eta **erakundeko irakaskuntza berrikuntza proiektu** izaera eman zion. Indarrean egongo da 2017tik 2019ra, eta, bertan, 12 irakasle eta ikertzailek (7 emakume eta 5 gizon), administrazio eta zerbitzuetako 2 langilek (1 emakume eta 1 gizon) eta 9 ikaslek (6 emakume eta 3 gizon) hartuko dute parte. 2018an, 15 hitzaldi eta tailer antolatu ditu, eta, horrez gain, 10 Gradu Amaierako Lan eta 4 Master Amaierako Lan egitea eta defendatzea sustatu du.

### 3. grafikoa. 2017-18 eta 2018-19 DEIALDIAK.



**4. grafikoa. 2017-18 eta 2018-19 deialdietako proiektuak.**



**Proiektuen bilakaera**

**8. taula.** Proiektuen bilakaera.

	2013	2014	2015	2016	2017	2018
<b>Aurkeztutako eskariak</b>	60	47	43	45	57	<b>42</b>
<b>Dirulaguntza jaso duten proiektuak</b>	31	26	31	26	43	<b>37</b>
<b>Parte hartzaileak</b>	203	201	256	212	361	<b>363</b>

## 2017an bukatutako proiektuak (HBP 2017-18)

### 9. taula PIE-HBP proiektuak.

Izenburua	Koordinatzailea	Ikastegia
Actividades docentes para promover el compromiso social universitario: solidaridad y sostenibilidad	SAIOA TELLETXEA ARTZAMENDI	Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea
Adaptación de programas teóricos y diseño e implementación de un programa práctico integral sobre la Metodología de Aprendizaje Basado en Proyectos ABP y, para reforzar la secuencia formativa entre las asignaturas de Lenguaje audiovisual y Técnicas de creación audiovisual	AINHOA FERNÁNDEZ DE ARROVABE OLAORTUA	Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
Aprendizaje cooperativo intercentro de la asignatura Gestión de Proyectos entre estudiantes de la Escuela de Ingeniería de Gipuzkoa, sección san Sebastián y Eibar	ANGEL PÉREZ MANSO	Gipuzkoako Ingeniaritzaritza Eskola
Aproximación conceptual a la Química desde la Magia	JUAN MANUEL GUTIERREZ-ZORRILLA LÓPEZ	Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Coaching educativo: hacia un aprendizaje activo, responsable y autónomo de nuestros estudiantes	LEIRE RUIZ DE ZAROBE	Letren Fakultatea
Desarrollo e implementación de metodología activa de aprendizaje: aprendizaje invertido para docencia trilingüe de asignaturas de ingeniería térmica, en las escuelas de ingeniería de la UPV/EHU	ΙÑAKI GOMEZ ARRIARAN	Gipuzkoako Ingeniaritzaritza Eskola
Diagnóstico de orientación vocacional en estudiantes de primero de Geología: estrategias de fortalecimiento y motivación	MARIA JESÚS IRABIEN GULÍAS	Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Diseño e implantación de la formación dual en el grado en Administración y Dirección de Empresas en la Facultad de Economía y empresa - Sección de Gipuzkoa: un proyecto piloto	ITZIAR AZKUE IRIGOYEN	Ekonomia eta Empresa Fakultatea
Diseño, implementación y evaluación de actividades enseñanza-aprendizaje activo y autónomo para el estudio global de	ARESATZ USOBIAGA EPELDE	Zientzia eta Teknologia Fakultatea

la termodinámica, cinética y equilibrio químico en titulaciones científicas diferentes al grado de Química		
El proyecto de los tres pilares con propósito aprendizaje por indagación en materias relacionadas con el Álgebra.	LEIRE LEGARRETA SOLAGUREN	Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Estudio de caso desde una perspectiva interdisciplinar, para el trabajo colaborativo de estudiantes del Grado en Educación Primaria, Grado en Educación Social y Grado en Psicología	JOANA JAUREGUIZAR ALBONIGA-MAYOR	Bilboko Hezkuntza Fakultatea
Euskarazko GRALen estilo-liburua Zientzia eta Teknologia Fakultateko titulazioetarako	MIREN IGONE ZABALA UNZALU	Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Hirigintza mahai-jokoa. Game based learning kooperativoa	EDUARDO ROJI CHANDRO	Bilboko Ingeniaritzako Eskola
Implementación de una metodología basada en experiencias prácticas reales para la motivación del alumnado en la asignatura de Física de primer curso de los grados de ciencias	IDOIA GARCIA DE GURTUBAY GÁLLIGO	Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Incorporación de las prácticas científicas en los Grados de Educación Infantil y Primaria	ARAITZ USKOLA IBARLUZEA	Bilboko Hezkuntza Fakultatea
Metodologías activas -PBL y CBL- en Ingeniería de Procesos y Producto para el desarrollo de competencias de Ingeniero Químico	ASIER ARANZABAL MAIZTEGI	Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Perfil profesional, centros de prácticas y ámbitos profesionales de la Pedagogía: definición, análisis y propuesta para la titulación	JON ALTUNA URDIN	Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Trabajo colaborativo: diseño de herramientas para una evaluación objetiva y de actividades multidisciplinares	NAIARA ROJO AZACETA	Vitoria-Gasteizko Ingeniaritzako Eskola
Videocastinga eta Postinga: diziiplina ezberdinak ikasleen euskarazko ahozko komunikazio gaitasuna lantzeko bideak	ASIER ROMERO ANDONEGI	Bilboko Hezkuntza Fakultatea
Webinar: una herramienta actual global al servicio del deep learning presencial	PATRICIA PEINADO MARTÍNEZ	Ekonomia eta Empresa Fakultatea

**10. taula.** 2018an bukatutako HBT **ADITUAK** taldeen proiektuak.

Izenburua	Koordinatzailea	Ikastegia
Debates y juegos de rol: vías para el desarrollo de competencias transversales en el Grado en Gestión de Negocios	JAUN JOSÉ MIJANGOS DEL CAMPO	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea
Grupo Especializado de Innovación Educativa en la Docencia en Ingeniería Informática utilizando Metodologías Activas basadas en Recursos Online, Valoraciones cruzadas y gestión de proyectos en Espiral ( DIMAROVE ) / Hezkuntza Berrikuntzarako Talde Aditua: Ingeniaritzaritza Informatikoaren irakaskuntzan Metodología Aktiboa erabiliz, online baliabideak, proiectuen kudeaketa espiralean eta balorazio gurutzatuak metodologiatan oinarrituak	ROSA ARRUBARRENA SANTOS	Informatika Fakultatea
Grupo Especializado de Innovación Educativa sobre el Rendimiento y el Engagement en Educación Superior	JOSE DOMINGO GARCÍA MERINO	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea
Los Trabajos de Fin de Grado de Farmacia como escenario del aprendizaje basado en problemas en las salidas profesionales	MARÍA YOLANDA FERNÁNDEZ DE ARÁNGUIZ GURIDI	Farmazia Fakultatea

HBP 2017-18 Hezkuntza Berrikuntzarako Proietkuen deialdiaren bidez finantzatutako taldeen ekoizpen zientifikoa 1. ERANSKINEAN dago jasota.

## 6. Ehundu AURERATUA PROGRAMA



2010ean, UPV/EHUk ikastegiak titulazioen eragile nagusitzat hartza erabaki zuen. **SAE-HELAZ** eta Kalitate eta Ebaluazio Instituzionalerako zerbitzua ikastegiak laguntzeko beharraren jakitun dira, proiektu akademiko sendoen erantzuleak diren unitate gisa indartu daitezen, IKD hezkuntza eredua garatu dezaten eta kanpo agentzien aurrean hartutako konpromisoak lor ditzaten, ikastegiak eta tituluak hedatzeari, akreditatzeari, aldatzeari eta hobetzeari dagokienez. Hori dela eta, ehundu programa proposatu zuten, zeina indarrean egon baitzen 2010etik 2016ra. 2017an, birformulatu egin zen programa hori, eta **ehundu-Aurreratua** izena jarri zitzzion. Bi urteko iraunpena du, ez da luzagarria eta honako helburu hauek ditu:

- Ikasleen ikaskuntza prozesuak aberastea, gizartearekin eta garapen iraunkorrarekin duten lotura bultzatzuz.
- Ikasleen eta gizarte eragileen parte hartza erraztea, tituluen garapenean.
- Barne kohesio eta lerrokatze dinamikak laguntzea, implikatutako kolektiboak (irakasle-ikertzaileak, AZPko langileak eta ikasleak), erakunde proiektu partekatu baten alde konprometitzeko eta ikastegien identitate berria eratzen laguntzeko, bereziki ikastegi berrien kasuan.
- Finantzaketa osagarria ematea, konpromiso jakin batzuen inguruko akordioan eta bi urtean helburu batzuk betetzea oinarri hartuta.
- Baldintzak sortzea, epe ertainera ikastegi guztiak kanpoko akreditazio instituzionala lor dezaten.

SAE-HELAZek laguntza eman die ikastegien zuzendaritzei programa honen kargura finantzatu ziren Iien prestakuntzarako ekintzen diseinuarekin zerikusia duen guztian. Programa 2018ko abenduan bukatu zen, eta sinatutako konpromiso dokumentuan adostutako adierazleen emaitzen arabera ebaluatu da. Dokumentu hori 2017ko eta 2018ko Urteko Rudeaketa Txostenen parte bilakatu da.

## **Ehundu-A programan parte hartu duten ikastegiak**

### **11. taula. Sailkapena, campusaren arabera.**

---

#### **Arabako Campusa:**

- Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola
  - Ekonomia eta Enpresa Fakultatea
  - Hezkuntza eta Kirol Fakultatea
  - Farmazia Fakultatea
  - Letren Fakultatea
  - Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea
  - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea
- 

#### **Campus de Bizkaia**

- Bilboko Ingeniaritza Eskola
  - Arte Ederren Fakultatea
  - Zientzia eta Teknologia Fakultatea
  - Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
  - Zuzenbide Fakultatea
  - Ekonomia eta Enpresa Fakultatea
  - Bilboko Hezkuntza Fakultatea
  - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea.
- 

#### **Gipuzkoako Campusa**

- Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola
  - Arkitektura Goi Eskola Teknikoa
  - Zuzenbide Fakultatea
  - Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia F.
  - Ekonomia eta Enpresa Fakultatea
  - Informatika Fakultatea
  - Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea
  - Psikologia Fakultatera
  - Kimika Fakultatea
-

## 7. IRAKASLE TALDE EGITURATUAK



Azken urteotako lanari esker, lankidetza kultura bat sortu da IKD irakaskuntza eredu sustatzen duten irakasleen artean, beren irakaslanean elkarlanean egiten dituzten ekintzetan eta UPV/EHUko ikasleek jasotzen duten prestakuntza etengabeko hobetzeko kezka partekatuan oinarrituta dagoena.

Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren Errektoreordetza **IKD edIKDit** irakasle talde egituratuak egiaztatzeko lehen deialdia egin du, irakasle talde horiei aitorpena eta ikusgaitasuna emate aldera.

Lehen deialdi pilotuan **182 irakaslek** (116 emakume eta 66 gizon) osatutako **27 talde aitortu dira**, eta **83 irakaslek** (emakumeak eta gizonak) osatutako **17 talde hauteman dira sortze bidean**.

Irakasle talde egituratuen edIKDit zigliuak 5 urteko iraupena izango du.

### 12. taldea. 2018ko deialdia. Generoaren arabera banatuta.

	Emakumeak	Gizonak
<b>Aitortutako taldeak</b>	27	116
<b>Parte hartuko duten irakasleak</b>	<b>182</b>	<b>116</b>
		<b>66</b>

### 13. taula.- edIKIT zibilua duten irakasle taldeen katalogoa



Grupo Especializado en Metodologías Activas y en Competencias Transversales en Farmacia (IdoFar)



Equipo docente para la Enseñanza Multidisciplinar Biosanitaria (IKAAsun)



Konputagailuen ARKItektura taldea (KAKI)

Equipo Docente MÓDULO VIDA PENSIONES (MVP) del Máster Universitario en Ciencias Actuariales y Financieras



Equipo para la Formación Integrada en Enfermería de la Sección Donostia/San Sebastián (ISECCO)



INgeniería Ambiental para la Sostenibilidad

Grupo Especializado en Innovación Educativa-ECUALE en Orientación y Mejora del Aprendizaje



Equipo Docente para la Mejora de la Evaluación Continua Formativa (ITForja)



Equipo de Coordinación del Grado en Ingeniería en Electrónica Industrial y Automática (ecGIElyA)



Equipo Docente para la Intensificación en Comunicación en Matemáticas (CM)



Equipo Docente Estructurado de Economía Aplicada con TICs (GEATICS)



Equipo Econometría AcTiva (GREAT)



Economia-Zuzenbidea-Kontabilitatea-Fiskalitatea  
(ECoDeFi)



Dirección Estratégica en Facultad de Economía y Empresa (sede y secciones)



Economía Mundial y Procesos de Desarrollo (EKOMUNDU)



Revisando, Reconstruyendo y Renovando las TIC en educación (berRIKT)



Ziberkazetaritza Berrikuntza eta Irakaskuntza (ZKBerri-IKD)



Equipo Docente del Máster en Banca y Finanzas Cuantitativas



BioGaitasun(ak) Irakasle Taldea  
(BioGalt)



Irakaskuntza eta Ikaskuntza Geologian (iGeo)



Equipo docente estructurado en Ingeniería Química adscrito a las áreas Energética y Civil (IQEC)



Metodologías de Aprendizaje Activo en el Grado de Ingeniería Electrónica (MAAGIE)



Zeharkako gaitasunak landuz (ZEHARGAITUZ)



Cálculo en Ingeniería Química (IK2)



Grupo Docente Estructurado en Matemática Aplicada (MAITE)



Microeconomía IKD




Docencia en Ingeniería Informática utilizando Metodologías Activas basadas en Recursos online, Valoraciones cruzadas y gestión de proyectos en Espiral (DIMAROVE)

# 2018an egin diren BESTE JARDUERA BATZUK

## XIV FORO INTERNACIONAL SOBRE LA EVALUACIÓN DE LA CALIDAD DE LA INVESTIGACIÓN Y DE LA EDUCACIÓN SUPERIOR (XIV FECIES) Santander, 2018ko maiatzak 10-12

Arabako koordinatzaile Iker Ros Martínez de La Hidalgak "[Líneas Prioritarias y Áreas Temáticas de los Proyectos de Innovación Educativa en la convocatoria 2018-19 de la Universidad del País Vasco](#)" komunikazioa aurkeztu zuen. Horren egileak Iker Ros, Eneritz Ugarte, Mirari Ayerbe, Mikel Garmendia eta Urtza Garay dira. Zientzia batzordeak kapitulua onartu du eta FECIES 2018 liburuan argitaratuko da.



## EFORT TALDEA ETA EVA2020 PROIEKTUA

Euskampus Nazioarteko Bikaintasun Campusa garatu eta indartzeko ekintzen esparruan, hain zuzen ere Ocean i3 plataforma testuinguruan sortu zen **EFORT TALDEA**, SAE-HELAZen eta Bordeleko Unibertsitateko (UdB) Mission d'Appui à la Pédagogie et à l'Innovation (MAPI) izenekoaren arteko lankidetzari esker. Ikerketa eta bi unibertsitate horietako (UPV/EHU eta UdB) ikaskuntzan hobetzea xede duen lankidetza talde gisa sortu zen eta irakasleei prestakuntza emateko zein aholkularitza pedagogikoa eskaintzeko lanetan aritzen diren irakasleek eta zerbitzu bakoitzeko kideek osatzen dute.

Lankidetza talde horren lehenengo ekimena honako hau izan da: "**PROYECTO EVA2020: Análisis y propuestas de mejora de los procesos de evaluación del alumnado en la universidad.**" Projektu horren xedea da beharrezko prestakuntza diseinatzea, bi unibertsitateetako irakasleak gai izan daitezen haien ikasleek ikaskuntza ebaluatzeko prozesuak garatzeko, espero diren ikaskuntza emaitzekin koherentzia gordez, irakaskuntza-ikaskuntza metodologiekin bat eta ebaluazio irizpide argiekin.

SAE-HELAZeko kide guztiekin hartu dute parte proiektuan, bai eta UPV/EHUko ohiko irakasleek kolaboratzaileek ere, hala nola Teodoro Palomaresek, Palomares, Pilar Ruiz de Gaunak eta José Francisco Lukasek. Bordeleko Unibertsitateko kide hauek hartu dute parte: Christophe Roine (MAPIko zuzendaria); Pauline Jourdan (koordinatzailea-ingeniari pedagogikoa); Jean Forgue (zuzendariordea) eta Merlin Lamago (ingeniari pedagogikoa).

Bi unibertsitate horietan, hasteko, egoera aztertzen da. Horretarako, irakaskuntza gida berrikusi egiten dira eta tresnak diseinatzen dira irakasleek ebaluazioari buruz dituzten ideiak eta kontzeptuak jasotzea, baita horiek praktikan jarri ere. Aldi berean, irakaskuntza gida bat sortzen da eta ebaluazioari buruzko hainbat prestakuntza ekintza diseinatzen dira.

Aurrez aurreko bilerak egin dira Urruñan (2028-04-27), Bilbon (2018-06-12) eta Bordelen (2018-09-27). Bordeleko bilera ebaluazioari buruzko *MAPI Day* kimenaren eguna berean izan zen; bertan, Mirari Ayerbe (SAE-HELAZeko zuzendaria) hizlari gisa aritu zen, eta izenburu hau zuen hitzaldia eman zuen: [Transforming teaching and learning in UPV/EHU: next station assessment](#).



Aldian-aldian, bideokonferentzia bidezko bilerak ere egin dira, bi unibertsitateetako taldeek, bakoitzak bere aldetik, egindako aurrerapenak aztertzeko.

## ISSOTL Bergen

Urriaren 24an eta 27an, **International Society for the Scholarship of Teaching and Learning**, [ISSOTL](#), sozietaearen bilera egin zen Bergenen, "Toward a Learning Culture" izenburuarekin. Hauek bertaratu ziren SAE-HELAZen ordezkari gisa: Mikel Garmendia, Elena Díaz Ereño eta Mirari Ayerbe. Ordezkari horiek poster hau aurkeztu zuten: "TKD: Cooperative and Dynamic Teaching and Learning Model in the University of the Basque Country, UPV/EHU".

HBT Adituak taldeetako kide hauek ere bertan izan ziren: Mikel Villamañe (eForja proiektua) eta Edorta Santos (IdoFar proiektua); "Promoting Reflection about Assessment to Improve

the Learning-Teaching Process" eta "Final Degree Projects Based on a Multidisciplinary

ProblemBased Learning Methodology" posterrak aurkeztu zituzten, hurrenez hurren (**irudian**).



SAE-HELAZeko kideak *Scholarship of Teaching and Learning* mugimenduko kide aipagarriekin biltzeko asmoz bertaratu ziren Bergeneko Konferentziara, 2019ko ekainean Bilbon egingo den EuroSoTL Konferentziarekin erlazionatutako azken kudeaketa-lanak biribiltzeko.

